

Herririk herri

500. alea dela-eta, 'Anboto'-k egun osoko
jaialdia antolatuko du maiatzaren 11rako > 4



Iketz eta San Eloyko beharginek etete espedientea eskatu dietela iragarri dute >3

Maiatzaren Leheneko
manifestazioan eman dute
egoeraren berri San Eloy
taldeko beharginek

Iketz (Abadiño) eta San Eloy (Elorrio) enpresetako behargi-
nak protagonista izan ziren Maiatzaren Lehenean LABek
Durangon antolatutako manifestazioan. "Albisterik txarra
eman digute. Langileontzako etete espedientea eskatu dute.

Enpresak zabalik mantendu gura dituzte, baina guk eragiten
diegun karga gabe", azaldu zuen langile batek. Manifesta-
zioan ziren LABeko Ainhoa Etxaide, EH Bilduko Laura Min-
tegi eta Sortuko Niko Moreno eta Maribi Ugarteburu.

"Jaurlaritzaren atea zabalik daude; egoera zailetan denen indarrak batu behar ditugu"

Iazko abenduan lehendakartzako
aginte makila hartu zuenetik, Iñigo
Urkulluk hainbat erronka ditu aurrean.
"Egonkortasuna bermatzeko" alderdi
guztiekin bilera egingo duela iragarri
zuen atzo, legebiltzarrean > 8



Argazki Press



- Oinetako
patologiak
- Neurria
egindako
plantillak
- Oinetako
beste hainbat
gaitz

IMQ AEGON BERSANET SANITAS

Herriko gudarien, 10 behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04



Trenbidean pasagune berri bat egiten saiatu dira hainbat herritar >2

Bost hilabete pasatu dira Durangon trena lurperatu zenetik, eta
oraindik trenbideak bitan zatitzen du herria. Herritar talde batek
pasabidea auzolanean zabaltzea erabaki zuen eguaztenean. Polizia
agertu, eta negoziatzen saiatu ziren. Azkenean, horma bota beha-
rrean eskailerak eraikitzea erabaki zuten. Atzo, udaltzaingoak
pasabidea zigilatu zuen, eta eskailerak kendu zituen. Udaleko EH
Bilduko ordezkariak azaldu dutenez, datorren barikuan pasabideak
zabaltzeko eskatuko diote Legebiltzarrean Garraio Sailburuari.

Abadiño > 6

EAJren babesagaz onartu dituzte
Independienteen aurrekontuak

Mañaria > 7

Errose Bustintza kultur etxea
inauguratu dute Mañarian

Izurtza > 7

Lehen eta bigarren eskuko
produktuen azoka domekan

Durango > 2

Amilibiako orubea eta Pinondo
dira txosnen kokapen posibleak

Herririk herri

> DURANGO

Trenbidean pasagune berri bat zabaltzen ahalegindu dira

Uribarri kalea eta Landako batzen diren lekuan egin zuten ekintza herenegun

> MARKEL ONAINDIA

30 bat herritarrek pasagune berri bat zabaltzeko ekintza egin zuten eguaztenean trenbidean. Uribarri kalea eta Landako batzen diren lekuan egin zuten ekintza, Gaztetxea eta Plate-ruena kafe antzokiaren artean. 09:00etan hasi ziren lanean: hesiak kendu, trenbideko egurrak eta harriak atera, zikinkeria

batu... Pasagunea zabaltzeko, horma botatzen hasi ziren makina batez, eta orduan udaltzainak agertu ziren, 10:00ak aldera. Handik ordu laurdenera, ertzainak etorri ziren. Obra geratu behar izan zuten, bestela, makinagaz lanean ibiliko zena atxilotu egin beharko zutela ohartarazi zutelako poliziek. Udaltzainen bidez Aitziber Iri-

goras alkateagaz egin zuten berba, eta antza denez, Irigorasek Eusko Jaurlaritzagaz ere bai. Ez zieten baimenik eman.

Baina, ez zen hor geratu ahallegina. Atsedean bat hartu eta, eguerdian, ideia berri bat otu zitzaion. Hormarik bota ezinik, horiek igarotzeko eskailera batzuk sortu zituzten trenbideko egurrak erabilita. Gainera, tren-

bidean bertan zementua bota eta baldosak ipini zituzten. Ekimenagaz durangar askoren arreta bereganatu zuten.

Atzo, udaltzaingoak pasagunea zigilatu zuen, eta eskailerak kentzen hasi ziren.

Herria zatitzen

Ekintzaileek ez zuten itxaron gura bide administratiboetatik pasaguneak zabaltzeko arte. 2012ko abenduaren 17az geroztik, trenak lur azpitik zeharkatzen du Durango. Baina, trenbide zaharrak herria zatitzen segitzen du, eta badirudi hilabeteak beharko direla desegin eta urbanizatze-

Durangoko mugarriak bisitatuko dituzte bihar

> M.O.

Mugarri Eguna ospatuko dute bihar, Durangon. Urteroko herri ibilaldia egingo dute mugarriak bisitatzeko, herriaren muga geografikoetatik ibiliz. Alpino mendi taldeak sustatzen du ekimena, udalaren laguntzagaz. Goizeko 08:00etan irtengo dute Andra Mariko elizpetik, eta bost ordutan amaitzea itxaroten dute. Neberondo, Santa Luzia, Mugarrekolanda, Marmola eta Landaederratik pasatu ostean bueltatuko dira herrigunera. Tartean, Izurtza, Mañaria, Dima eta Zornotzagaz mugak zehazten dituzten harriak ikusiko dituzte. Antolatzaileek zapatilak barik botak erroteko aholkua eman dute.

Landaederran, atsedean hartu eta kopaua egiteko aprobetxatuko dute. Gainera, Ander Gorrotxategi zinegotziak dioenez, udalak bertako aterpea berri duenez, ikusteko aukera izango da. Aterpeko araudia behin-behinean onartuta dago; herritarrek erabiltzeko aukera edukiko dute.



Ekintzaileak, trenbidean lanean, eguaztenean.

EH Bilduk pasabideak egin ditzala eskatuko dio Garraio Sailburuari datorren barikuan, legebiltzarrean

ko. Geltokitik Landakora arteko eremuan zer egin erabakitzeko prozesu bat hasita dauka udalak, baina lurra Jaurlaritzarena da oraindik. Prozesu hori udazkenean amaitzea itxaroten dute.

EH Bilduk prentsaurrekoan azaldu duenez, pasabideak egin ditzala eskatuko dio Garraio Sailburuari datorren barikuan, legebiltzarrean.

Talo Eguna ospatuko dute bihar, Tabira auzoan

> M. O.

Tabira Jaiak elkarteak Talo Eguna antolatu du biharko. Azken urteotako ohitura da jaialdi hori, eta biharko ere hainbat ekintza prestatu dituzte. Taloak eskainiko dituzte eguerdiko 12:00etatik aurrera. Baina, egitarauari 10:30ean emango diote hasiera, etxeko produktuen azoka zabaltzeko dute-eta. Azaldu dute azoka aurtengo nobedadea izango dela.

Gainera, egun guztian umeentzako tailer ugari garatuko dituzte: gaztagintza, birziklapena, errokillagintza, aurpegi margolariak... 16:00etan pailazoen emanaldia egongo da, eta 18:00etan txokolatada.

Giroa sortzea

Biharko jaialdiagaz auzoan giroa sortzea da elkartearen helburua. Ekainean, San Pedro jaiak ere antolatzen dituzte helburu berragaz, adierazi dutenez.

Amilibiako orubea eta Pinondo, txosnen kokapen posibleak

Ezkurdi da beste aukera, baina udalak ezetz dio "hainbat ekitaldi antolatzen direlako bertan"

> JONE GUENETXEA

Durangoko Udalak txosnak non ipini daitezkeen erabakitzeko proposamenak egiteko eskatu dio txosna batzordeari. Montevideo kalean dagoen Amilibia-

ko orubea, Pinondo eta Ezkurdi izan dira joan zen asteeko batzarrean txosnek mahai gainean jarritako aukerak. Txosnetako arduradunek diotenez, "udalak errotaio sistemaren alde egi-



Kurutziaga kalean jarri zituzten ia txosnak. Kepa Aginako

ten du. Guk eskatzen duguna da jaigunetik gertu egotea". Natxo Martinez zinegotzi jeltzaleak eta jai batzordeko presidenteak azaldu duenez, "Ezkurdi ezin daiteke txosnen gunea izan, jaietan hainbat ekitaldi bertan antolatzen direlako".

Amilibiako orubearen ingurua, Martinezek dioenez, gune pribatu bat da, eta jabeai baimena eskatu beharko litzaieke

Martinezek dioenez, Amilibiako orubea pribatua da, eta jabeai baimena eskatu beharko litzaieke

lehenik. Horrez gain, Landako Gunera bidea egin beharko litzatekeela eta segurtasun neurriak hartu beharko liratekeela gaineratu du: "Udaleko teknikariak aukera hori aztertzen dabilta".

Txosnak Pinondon jartzea da beste aukera. Aurretik ere leku horretan sarritan ipini dituzte.

> ATXONDO

Plan Nagusiari buruzko dudak argituko dituzte gaurko bileran

> JOSEBA DERTEANO

Gaur, 18:30ean, batzar irekia egingo dute udalbatzar aretoan, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren inguruan herritarrek dituzten kezak eta galderak argitzeko. Plana osatu duten arkitektoak egongo dira, baita abokatu bat ere, alderdi juridikoaren inguruan egon daitezkeen duden buruz berba egiteko.

Rosa Elizburu alkatearen esanetan, "auzo batzarretan konturatu ginen herritarrek planaren gaineko galderak zizutela, eta hainbat galdera teknikoak ziren; horiek argitzeko erabaki dugu gaurko batzarra antolatzea".

Hiri Antolamendurako Planari alegazioak egiteko 45 egunak ekainaren hasieran amaituko dira. Ondoren, alegazioei erantzun dieten.

> DURANGALDEA

San Eloyko borroka, Maiatzaren Leheneko manifestazioan protagonista

San Eloyko beharginek etete espedienteak eskatu dietela iragarri zuten LABen mobilizazioan

> MARKEL ONAINDIA

LABek eguaztenean Maiatzaren Lehen delata eta Durangon eginiko mobilizazioan, San Eloy taldeko beharginak izan ziren protagonista. Ehundaka lagunek manifestazioa amaitzean, beharginak oholtzara igo ziren. Berba hartu zuen eurretako batetik: "Albisterik txarrena eman digute: langileontzako etete espedienteak eskatu dute. Enpresa biak zabalik mantendu gura dituzte, baina guk eragiten diegun kargarik barik". Adierazi zuen ez dutela onartuko enpresak ixtea, ezta beharginen eskubideen kontura salbatzea ere.

Eguerdiko 12:30ean udaletxeko plazatik irten zen protesta, Ainhoa Etxaide idazkari nagusia eta Eulate Zilonizaurrekotxe eskualdeko arduraduna pankartan zeudela. Sortuko Niko Moreno eta Maribi Ugarte-buru eta EH Bilduko Laura Mintegi ere baziren manifestarien artean. Andra Mariko elizpean egin zuten amaierako ekitaldia. San Eloykoen ostean, Zilonizaurrekotxeak hartu zuen berba. Enpresaburuak eta euren gestioak kritikatu zituen: "Beharginen lanaz kolpetik aberastu diren horiek desagertu egin dira."

Zilonizaurrekotxeak:
"Beharginen lanaz kolpetik aberastu diren horiek desagertu egin dira"

Egoera miserable hau langileen erantzukizunaren menpe utzi dute. Jende hori kartzelara joan beharko litzateke".

Etxaidek, eguneroko borrokak goraipatu eta hilaren 30eko greba orokorrerako deia egin zuen

Azken urteotako murrizketak gogoratu eta aurrerantzean etorri ahal direnez ere abisu eman zuen: "Egia da oso momentu gogorak bizi ditugula. Urte luzeetako borrokaz gure gurasoek lortutako eskubide guztiak egun batetik bestera kendu gura dizkigute". Durangaldeko egoera larria dela esan zuen Zilonizaurrekotxeak.

"Duintasunaren argazkiak"

Ainhoa Etxaidek, LABeko idazkari nagusiak, eman zion amaiera ekitaldiari. Azaldu zuen enpleguaren defentsan etorri zela Durangora, eta San Eloy lako borrokak "duintasunaren argazkiak" direla. Kontrara, Eusko Jaurlaritzaren proposamen ekonomiko eta politikoen aurka egin zuen. Esaterako, EAJk PSE-EE eta PPri eskainitako akordioa kritikatu zuen.

Eguneroko borrokak goraipatu eta maiatzaren 30eko greba orokorrerako deia egin zuen Etxaidek.



Manifestariak, eguaztenean, Etxaide eta Zilonizaurrekotxeak pankartan daudela.

> OTXANDIO

Amaren Alabak taldeagaz kantu-afaria bihar, Mekoletan

Emakumezkoen talde zuberorria etorriko da

> J.D.

Zapatuan bosgarren aldia egingo du Mekoletako Arkotxe kultur elkarteak antolatzen duen kantu afariak. Urtero Ipar Euskal Herriko musikariak ekartzen saiatzen dira eta aurten Zuberoko Amaren Alabak izeneko taldea gonbidatu dute. Amaren Alabak lau zuberotar emakumez osatutako musika talde berezia da. Zuberotar tradiziozko kantu moldea eta eragin modernoak nahasten dituzte. Helburua musikariek

zein afaritarra batzen direnek elkarrekin abestea da.

Liburu azoka, asteburuan

Bestalde, joan zen asteburuan bertan behera geratu zen liburu azoka asteon antolatuko du udalak. Zapatuan eta domekan izango da, 12:30etik 14:30era, udaletxe parean. Liburuak trukatu edo saldu egin daitezke eta udalak 600 liburu ipiniko ditu euro batean. Umeentzako ipuin kontakariak ere egongo dira 12:30ean.

BADIRA ATE BAT IREKITZEAN HASTEN DIREN AMETSAK.

"MU TELEBISTAN PRAKTIKAK EGITEAK LAN MUNDUA GERTUTIK EZAGUTZEKO AUKERA EMATEN DIT."

Odei Esnaola, Ikus-Entzunezko Komunikazioko 3.mailako ikaslea.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Poiliteknikoa

ARRASATE • **MAIATZAK 11** larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI • **MAIATZAK 4** larunbata, 11:00

BILBAO, Bilbao Lab • **MAIATZAK 25** larunbata, 11:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

ESKORITATZA • **MAIATZAK 25** larunbata, 11:00

ARETXABALETAK • **MAIATZAK 25** larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA • **MAIATZAK 25** larunbata, 10:30

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

**500
xZU**

500. alera helduta, ospakizuna egingo du 'Anboto'-k

Maiatzaren 10ean, 500. alea aterako du 'Anboto'-k; hilaren 11n, egun osoko jaia egingo da Durangon

> MARKEL ONAINDIA

Maiatzaren 10ean *Anboto* astekariaren 500. alea helduko da Durangaldeko postontzietara. Badira hamaika urtetik gora, *Erazen* erreleboa hartu eta lehenengo *Anbotoa* kaleratu zela. *Anboto* ez bazoaz, *Anboto etorriko jatzu* zioen hasierako leloak. Urteak joan dira, eta proiektua hazi ahal sendotuz joan da.

Denbora horretan guztian Durangaldean gertatutakoa jaso du *Anboto*k. Informazio hori euskaraz helarazi du, hizkuntzaren erabilera indartzeko ahalginiaren parte izan guran. Eta aurrera begira ere, ildo horretan jarraitu gura du, euskara urteko 365 egunetan zabaldua.

'500xZu'

Durangaldeko herritarrengandik jasotakoa, herritarrentzako idatzia. Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañá-

ria, Otxandio eta Zaldibarko herritarrek dira *Anboto*ko protagonistak. Hortik dator lelo berria: *500xZu*.

100, 200, 300, 400 eta 500. Datoren barikuko ale hori, zelan ez, berezia izango da. Aste horretako albisteez gainera, hainbat osagai edukiko ditu: urte hauetan guztietan jasotako hainbat notizia, argazkiak, elkarrizketak...

Ospakizuna, 11n

Gertaera esanguratsua dela-eta, *Anboto*k tamaina bereko ospakizuna egin gura du. Maiatzaren 11n, egun osoko jaia egingo da Durangon, euskaltzale guztiekin batera ospatzeko. Hauxe da egitaraua, goizetik gauera: bizikleta festa, dantza saioa, pintxo bana-keta, poteoa, bazkaria, ekitaldia, erromeria eta dj-a. Plateruena kafe antzokian egingo da bazkaria; txartelak eskuragarri daude bertan, baita *Anboto* eta Berbaroren egoitzetan ere.



Goian, 'Anboto'-ren 10. urteurrenean ateratako familia argazkia.

> BERRIZ

Udalekuetan izena emateko epea hasiko da astelehenean

> AMAIA UGALDE

Uztailaren 4tik 24ra egingo dituzte udaleku irekiak, Berrizen. Talde bi egongo dira: Txiki txoko -2008 eta 2009 urteetan jaiotakoentzat- eta Gazte Txoko -LHko lehenengo mailatik seigarren mailara artekoentzat-. Izena emateko aukera datorren asteleheneetik maiatzaren 24ra arte egongo da.

Berrizen erroldatutako umeen kasuan, 70 euro balio du matrikulak; bi neba-arreba matrikulatuz gero, 60 euro; eta hiru neba-arrebak izena emanez gero, 50 euro. Plazak kopurua mugatua da, eta berriztarrek edukiko dute lehentasuna izena ematerako orduan.

Tailerrak, jolasak eta irteerak edukiko dituzte mendira, igerilekura eta hondartzara. Ia egunero 09:30etik 13:30era egongo dira udalekuetan, eta irteera egunetan 17:00ak artekoa izango da ordutegia. Helburu nagusietako bat aisialdian euskaraz gozatzea da.

> ELORRIO

300 lagundik gora, Besaide dantza taldeko urtemugan

45. urtemugako jaialdia egin zuten zapatuan

> M. ONAINDIA

Joan zen zapatuan egin zuten Besaide dantza taldearen 45. urtemugako jaialdia. Egun osorako prestatu zituzten ekitaldiak. Goizean, kalejira eta dantza saioa egin zituzten. Gero, bazka-

rian, 300 lagundik gora batu ziren. Eguna giro onean pasa zutela esan dute antolatzaileek.

Eguna zelan joan zen ikusita, oso pozik daudela adierazi dute. Eguraldiak traba egin zien, baina aterpeak eskura zeuzkaten.



Besaide dantza taldekoak, plazan.

500 euroko saria, Ferixa Nausikoen kartel lehiaketan

> M. O.

Elorrioko Udalak martxan ipini du 2013ko Ferixa Nausikoetarako kartel lehiaketa. Maiatzaren 24ra arteko epea dago lanak aur-

kezteko, eta irabazleak 500 euroko saria eskuratuko du.

Aurkeztutako lan guztiak ikusgai ipiniko dituzte ekainaren 3tik 15era, Iturri kultur etxean. Gura duenak botoa emateko aukera edukiko du. Horren ostean, epaimahai tekniko batek erabakiko du zein den irabazle, herritarren iritzia kontuan hartuta.

> MALLABIA



Iazko kultur hamabostaldian ateratako argazkia.

FIAREko kide baten berbaldiak zabalduko du kultur hamabostaldia

Banku etikoaren inguruko hitzaldia emango du Galo Bilbaok

> JONE GUENETXEA

Ekitaldiz beteta dator Mallabiko kultur hamabostaldia datozen aste bietan. Mallabiko Udalak herriko hainbat elkar-terekin elkarlanean antolatu du egitaraua. Maiatzaren 8an, esaterako, Galo Bilbao FIARE banku etikoko kideak *Banku etikoa. Beste ekonomia bat posible da* izeneko berbaldia emango du kultur etxean, arratsaldeko 19:30etik aurrera.

Maiatzaren 9an, bizikletak konpontzen erakutsiko du Koldo Praderak, 19:00etan hasita, kultur etxean.

Arkitektura arloko berbaldi batekin jarraituko du egitarauak. Maiatzaren 10ean, Egoitz Mendizabal arkitektoak *Nola isolatu gure etxea ganoraz* berbaldia eskainiko du. Gaueko 22:00etan, Ispilua antzezlan taularatuko dute.

Maiatzaren 11n, goizean, auzolanerako bilduko dira

herriko konponketak egiteko. 13:00etan, herri baratzen aurkezpen irekia egingo dute. 17:00etan, Zorion Alberdik Orux Map mendiko GPSak zelan funtzionatzen duen azalduko du. Revolutionary Brothers reggae jaia antolatuko dute herriko tabernan, datorren asteko zapatuan. Lau ordu geratu gabe musika entzuteko aukera eskainiko du Izar Gorri kultur elkarteak. Hurrengo astean ere jarraitzen du egitarauak.



500. ale hau zuri
esker bete da...



Maiatzaren 11n

10:30

Bizikleta festa Durangoko Ezkurditik
irtenda (Ibilbidea: Durango eta Iurreta)

Argazki Rallya egun osoan zehar

12:00

Dantza saioa Ezkurdin: De Norte a Sur eta Kriskitin
taldeak. Ondoren, L'Atelierreko gazteen Flash
Mob-a. (Euria bada Andra Mariko elizpean).

Oilasko errea banatuko da

13:00

Kantubira musikariek eta
bertsolariek lagunduta, Durangoko
Alde Zaharrean zehar

14:30

Bazkaria Plateruenean

Txartelak Plateruenean,
Berbaron eta Anboton salgai
(15€ nagusiak / 10€ umeak)

15:00

Umeentzako ludoteka

Oxabi taldeak bazkalostea girotuko du

17:00

Anbotoren 500. alearen inguruko ekitaldia

20:00

Luhartz

23:00

DJ Xabi Urriaga

Zatoz gurekin ospatzera!



> ABADIÑO

EAJren babesagaz onartu dituzte Independienteen aurrekontuak

Murrizketak egin dituzte 2013ko udal aurrekontuetako partida guztietan



Bilduko bost zinegotziak, aurrekontu proposamenaren kontrako bozka ematen.

Berbaroren eskutik, gazteentzako abentura udalekuak, uztailean

Hamaika eta hamazazpi urte bitartekoentzako antolatu dute, lehenengoz

> I.E.

Hamaika eta hamazazpi urte bitartekoentzako udalekua eskainiko du Abadiñoko Udalak uztaileko lehenengo hamabostaldian. Durangoko Berbarok euskarra elkarteak hartu du udalekuak kudeatzeko ardura.

Uztailaren 1etik 12ra artean egingo dituzte saioak, eta hainbat ekintza eta irteera eskainiko dizkie Berbarok

Uztailaren 1etik 12ra bitartean, goizez egingo dituzte saioak (09:30etik 13:30era), eta hainbat ekintza eta irteera eskainiko dizkie Berbarok parte hartzen duten neska-mutilei: Sopuertako abentura parkera edota Bakion surf eskolak hartzera joango dira, esaterako, eta sukaldaritza, trinketea, eta igeriketa ere landuko dituzte.

Maiatzaren 10era arte, Errota kultur etxean edo Zelaietako Mediatekan eman daiteke udalekuetarako izena

Maiatzaren 10era arte, Errota kultur etxean edo Mediatekan eman daiteke udalekuetarako izena. Informazio gehiago gura duenak, 94 466 94 20 telefonora deitu edo gazteria@abadiano.org helbidera idatz dezake.



Sopuerta Abentura parkera irteera egingo dute, besteak beste.

> ITSASO ESTEBAN

Iazkoagaz alderatuta, %12,5 txikiagoa da udalak 2013rako onartu duen aurrekontua. EAJren babesagaz egin du AI taldeko gobernuaren proposamenak aurrea. Antonio Serrano ogasuneko zinegotziak azaldu zuenez, “krisi egoerak eta aurrekontuen egonkortasunerako legeak mugaturiko aurrekontua” da bere taldeak proposaturikoa: “Trantsizioa aurrekontu teknikoa”.

Alor guztietan murrizketak, eta guztira, 9,7 milioko sarrera eta gastuak aurreikusten ditu proposamenak. Alko zinegotziak azaldu zuenez, “aurten, zoritxarrez, bi proiektutan bakarrik

Antonio Serrano: “Aurten, zoritxarrez, bi proiektutan bakarrik inbertitu ahal izango du Abadiñoko Udalak”

inbertitu ahal izango du udalak”, adierazi zuen Serranok: 1,4 milioi euro bideratuko dituzte Zelaietako haurreskolako eraikin berria atontzera, eta 92.000 euro Trañabarren plaza urbanizatzen.

“Arduratsuak izan, egonkortasuna bultzatu, eta eredu eman behar dugula uste dugu”, azpimarratu, eta alde bozkatu zuen Sarai Mimenza jeltzaleak.

Kontra egin zuen, aldiz, Bilduk. Gobernu taldeak Bildurekin hitz egiteko borondaterik ez duela kritikatu zuen Aitor Azueta Bilduko bozeroaleak.

Euskal Fondoa, baldintza

“Badakigu aurrekontu hau EAJ-gaz adostuta egon dela, eta gurekin egindako bilera formalismo hutsa izan zela”, kritikatu zuen Azueta: “EAJk aurrekontu honi aurrera egiten utzi dio udala Euskal Fondotik ez ateratzearen baldintza bakarragaz: EAJk aurrekontuak onartzeko baldintza moduan ipini du Abadiñoko Udalak Euskal Fondotik ez ateratzea”.

> GARAI

Udal tramiteak Internet bidez egin ahal dira

Udalaren webgunean sartu eta bertan topatuko dute informazioa; hamazazpi tramite daude prest

> MARKEL ONAINDIA

Garaitarrek Internet bidez egin ahal izango dituzte oraindik aurrera udaleko hainbat tramite. Udalaren webgunean (www.garaikoudala.org) sartu eta bertan topatuko dituzte horretarako informazioa eta bidea. Guztira, hamazazpi trami-

te daude prest; honako hauek, besteak beste: erroldan datuak aldatu edo agiriak lortzea, banku-helbideratzeak, haurtzaindegirako eskaerak, kexak... Etorkizunean 100 eragiketa eskuragarri ipintzea gura dute.

Beste herri batzuetan garatuta dagoen egitasmoagaz hasi dira Garain ere. Aldundiak sustatutako Biscaytik programa da. Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazi du prozedura administratibo horiek egitea erraztu gura dietela herritarrei, hori dela helburu nagusia. Etxetik egin ahal izango dira tramiteak, asteko zazpi egunetan eta eguneko 24 orduetan.

Alkateak adierazi du prozedura administratibo horiek egitea erraztu gura dietela herritarrei

> ZALDIBAR

Ibur-erreka industriaguneko urbanizazioa amaitzeko

Argiteria eta seinaleztapena atonduko dituzte

> I.E.

Eibar, Zaldibar eta Elgetako lurretako Ibur-erreka industriagunean seinaleztapena eta argiteria ipintzeko proiektua onartu zuten, joan zen asteko udalbatzarrean, aho batez.

Zaldibarko Udalaren onarpenagaz, orain, Eibar eta Elgetako udalbatzarretan ere onetsi beharko dute Ibur-erreka in-

dustriagunea atontzeko 35.400 euroko proiektua. Jose Andres Urizar hirigintzako zinegotziak azaldu zuenez, industriaguneko konpentsazio-batzordeak ordainduko du obra.

“Batez ere, segurtasun arloan inguru horrek dauzkan gabeziak konpontzea oso beharrezkoa da”, adierazi zuen Arantza Baigorri alkateak.

Udabarri honetan: kontzientzia irabazi, pisua galdu

Zugan antsietatea eragiten duten faktoreak kudeatzeko eta **noiz eta zer jan nahi duzun erabakitzeko tresnak** emango dizkizun **IKASTAROA** proposatzen dizugu.

Maiatzaren 22tik ekainaren 26ra
Asteazkenero. 18:00-20:30
656 738 472 - 600 611 601
www.on-egin.eu

Aldatu zure gorputza barrutik hasita

> DURANGALDEA ASTEON**Enpresen pisu fiskala berbagai Behargintzan**

Enpresa txiki eta ertainei pisu fiskala zelan arindu azaltzeko jardunaldiak antolatu ditu Amankomunazgoko Behargintza zerbitzuak. Torrealday aholkularitzaren eta Dendak Bai elkartearen laguntza izango dute. Gaur amaitzen da izena emateko epea: 94 623 25 22.

‘Salerosketak be euskaraz’-eko iPada zotz egin dute

Salerosketak be euskaraz ekimenari dagokion laugarren iPad elektronikoa emateko zozketa egin dute. Honako zenbaki hauek izan dira sarituak: lehenengo zenbaki saritua 167.518 izan da (Karmenxutxulea), eta bigarrena 175.151 zenbakia da, Garoa arropa denda emana.

**Traña-Matienako herri eskolako kirolgune berria inauguratu dute**

Eskolako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen atsedendietarako erabilgarri dago kirolgune berria. Eskola ordutegitik kanpo herritarrentzako zabalik egongo da ingurua. Besteak beste, futboleko zabalik egongo da ingurua. Bes-teak beste, futboleko zabalik egongo da ingurua. Abadiñoko Udalak 228.759 euroko inbertsioa egin du; %60 Jaureritzak finantzatu du.

> MAÑARIA**Errose Bustintza kultur etxea inauguratu dute, herritarrek lagunduta**

Joan zen barikuan egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta 60 bat herritar bertaratu ziren

> MARKEL ONAINDIA

Inauguratu dute Mañariko kultur etxe berria. Errose Bustintza izena eman diote, XX. mende hasierako herriko idazle ezagunaren omenez. Barikuan egin zuten inaugurazio ekitaldia, eta 60 bat herritar bertaratu ziren. Dantzarien agurraren ostean, barrura sartu eta bisita egin zuten. Bertan izan ziren udaleko hainbat zinegotzi, Bildu zein EAJkoak. Endika Jaio alkateak jardun zuen gidari.

Bideo bat proiektatu zuten liburategian, Korrika pasa zeneko irudiekin. Mañaritik igarotzen zen lehenengo aldia zen, eta jendeak interes handiz ikusi zuen bideo hori.

Bigarren solairuan, argazki lehiaketako erakusketa zabaldu zuten. Maiatzaren 10era arte egongo da argazkiak ikusi eta botoa emateko aukera. Horrez gain, bigarren pisu horretan jubilatuek ere edukiko dute euren gunea. Hainbat ekintza egin



Inaugurazioa hasteko, dantzariak agurra egin zuten, joan zen barikuan.

gura dituzte kultur etxe berrian. Esaterako, umeei bertsoaren mundua ezagutu eta euskararen inguruko jolasak garatzea. Tailerrak eta irakurle klubak

ere iragarri dituzte. Liburutegia 15:00etatik 19:00etara egongo da zabalik. Baina, azterketa saioetan ikasleek gura dutenean erabiltzeko aukera edukiko dute.

Bestalde, Errose Bustintza kultur etxearen behealdean dagoen Errekondo taberna ere berriro zabaldu dute, udalaren esleipena jaso ostean.

> IZURTZA**Domekan azoka egingo dute lehen eta bigarren eskuko produktuekin**

Pilotalekuan 23 postu ipiniko dituzte, 11:30etik 14:30era

> JOSEBA DERTEANO

Domekan, lehenengo eta bigarren eskuko produktuen azoka egingo dute Izurtzako pilotalekuan. Goizeko 11:30etik eguerdiko 14:30era askotariko produktuen 23 postu ipiniko dituzte.

Besteak beste, Atxondo, Elorrio, Otxandio, Lemoa eta Galdakaotik etorriko dira euren postuekin. Postuotuen, deneriko

produktuak salduko dituzte: liburuak, haurrentzako osagarriak, xaboi naturalak, arropa... Saldu ezin daitekeen produktu bakarra janari iragankorra da. Produktuak saldu edo trukatu egin daitezke.

Postuetako bat, *La otra mirada* izeneko Gobernu Kanpoko Erakundearena izango da. Horiek xaboiak eta harribitxiak lako

produktuak ekarriko dituzte. Batzen duten dirua Mongoliako eskoletara bidaltzen dute.

Era berean, Durangoko Geu Be elkarteak 10. urteurrena ospatzen dabil aurten, eta *Benetako berbak* izeneko erakusketa antolatu dute herririk herri. Domekako azoka, Izurtzan euren erakusketa antolatzeko aprobeztatuko dute.

> IURRETA**Elikadura eta osasuna hizpide, maiatzean**

Anderebide elkarteak hitzaldi sorta eratu du

> AITZIBER BASAURI

Elikadurari eta osasunari buruzko jardunaldia antolatu du Anderebide elkarteak. Maiatzean hainbat berbaldi eskainiko ditu Dorleta Martinez hematologoak, Ibarretxe kultur etxean. Guztiak izango dira 18:30etik 20:00etara.

Maiatzaren 8an, eguna, abiatuko dute jardunaldia *La alimentación actual y su in-*

fluencia en nuestra salud berbaldiagaz. Maiatzaren 15ean *Osteoporosis. La salud de los huesos a través de la alimentación natural* izenburupean jardungo dute, eta, hilaren 22an, *Fibromialgia y otras enfermedades ambientales. Síndrome de fatiga crónica* izenburupean. Azken saioa 29an izango da: *Cómo protegernos del cáncer y ayuda a su curación.*

Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa

AURREMATRIKULA EPEA ZABALIK
maiatzaren 27tik ekainaren 7ra

Lan mundura hurbiltzeko ikastaro osagarriak eta proiektu praktikoak garatzeko aukera eskaintzen dogu!

Deitu eta informatu zaitez!



www.orueeskola.org
Tel. 946 300 058

ORUE ESKOLA · San Miguel de Duda, s/n · 48340 AMOREBIETA-ETXANO

➤ Berbaz

Iñigo Urkullu Renteria | Alonsotegi, 1961 | EAEko lehendakaria

“Akordio zabalen garaia da, eta helburu horrekin eskua luzatu diot oposizioari”

Aktualitateko gaiez eta lehendakari izateak eguneroko bizitzan eragin dizkion aldaketez erantzun du Iñigo Urkullu lehendakariak. Jaurlaritzako aurrekontuen onarpena du orain esku artean. Euskal erakundeei “egonkortasuna” ematea duela helburu azaldu du



> JONE GUENETXEA
Iñigo Urkullu izatetik “Lehendakari Jauna” izatera pasatu zara; zer aldaketa igarri duzu iazko abendutik?

Euskal herritar bezala bizi dezakedan ohorerik handiena da Euskadiko lehendakaria izatea. Diozun bezala, lehendakari izateak aldaketak dakartza eguneroko bizitzan, norberari eta etxekoei, bereziki. Zentzu horretan, oreka bilatu behar da. Hala ere, lehendakaria bai, baina Iñigo Urkullu izaten jarraitzen dut.

Alonsotegikoa izan arren, Durangon bizi zara urte askoan. Familia osoa zurekin joan da Gasteizera?

Esan bezala, norberari ez ezik, etxekoei ere eragin die garai berri honek, eta bizilekuz mugitu beharra izan da aldaketa horietako bat. Seme-alabak helduak dira jada, eta bi semeek Durangon bizi izaten jarraituko dute.

Zer gertatuko da Durangon Trenaren lurperatzearekin libre gelditu diren lurrekin?

Durango Operazioarekin 60.000

metro karratu libratu dira, eta etxebizitzak eta berdeguneak eraikiko dira bertan. Aurrerapauso bat da Durangorentzat. Lan horien finantziazioa neurri handienez Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu badu ere, herriaren eraldaketa proiektu hau erakundeen arteko elkarlanaren adibide izan da.

Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak atzera bota behar izan ditu.

Eusko Jaurlaritzak, eta nik neuk, lehendakari bezala, aurrekontuen inguruan akordio egonkor bat lortzeko ahalegin guztiak egin ditugu. Bost bilera erronda egin ditugu talde parlamentarioekin. Baina aldiro egin dugu topo oposizioaren ezezkorekin, nahiz eta euren proposamenean aurrera egiteko prest agertu garen.

Zelako hartu-emanak izan duzue?

Gizarte politikak bermatzen genituela ikusi zutenean, aurrekontuetan diru sarreraren atala handitzea nahi zuten. Aukera

“
Euskadiri estatus berria ematea da nire proposamena”

bazegoela azaldu genienean, hori ez zitzaien nahikoa iruditu, eta ezezkoarekin jarraitu zuten. Oinarritzko dokumentu bat aurkeztu genien, gastua handitzeko sortu daitekeen egoera berria elkarrekin kudeatu eta adosteko proposamena eginez, baina horri ere ezezkoa eman diote. Ezezkoa, beste arrazoirik gabe. Herri mailako akordio egonkor baten aukera eman, eta hala ere, bizkarra eman diote, ez Jaurlaritzari soilik, gizarte osoari baizik. Gobernu honek ahalegin guztiak egin ditu, leialtasun eta sinismen osoa jarritz elkarriket-

tetan. Ez dugu lortu, onartzen dut, baina oposizioaren blokeo jarrerak ez duelako ahalbidetu.

Oposizioko alderdiekin batu gura duzula azaldu zenuen atzo, legebiltzarrean.

Akordio zabalen garaia da, eta helburu horrekin eskua luzatu diot berriro oposizioari: Euskadik dituen erronka nagusietan aurrera egiteko, batetik; eta euskal erakundeei egonkortasuna emateko, bestetik. Eusko Jaurlaritzaren ateak zabalik daude, egoera zailetan denen indarra behar dugu.

Durangar asko kezkatuta dago kultura eta euskalgintza alorreko murrizketekin.

Euskara eta kulturgintza Gobernu honen bide-orrian daude, dudarik gabe. Euskara eta kulturgintzarik gabe, ez dago herririk. Hori bai, diruz lagunduta soilik ez da euskararen etorkizuna bermatzen, norabidea garbi ez badago. Horregatik, oreka bilatuko dugu aurrekontuak ezartzen dituen zailtasunen eta euskarak eta kulturak behar duten ba-

besaren artean. Euskalgintzak eta kulturak baldintza egokiak behar dituzte zabalkunderako, eta Gobernu honek baldintza horiek bermatuko ditu.

Bakegintza arloan, zer pauso geratzen dira emateko?

Euskadik orain arte demokrazian ezagutu gabeko garai bat bizitzen ari gara. ETaren indarkeriarik gabeko aroa. Baina oraindik, urrats garrantzitsu bat egiteko dauka ETak: armak entregatu eta desagertzeko prest dagoela adieraztea. Euskal gizarteari zor dio. Hori ETak egin behar du. Bestalde, erakunde eta eragile politikoei dagokigu urrats horiek ahalbidetzea, eta bakea egonkorra izateko baldintzak sortzea; izan ere, bakea ez da indarkeriarik eza soilik. Bakea egonkorra izan dadin, ezberdinen arteko elkarbizitza behar da, orain arteko biktima guztien aitortza eta erreparazioa behar da. Iraganaren irakurketa kritikoa egin behar da, eta espetze politikan salbuespen neurriekin amaitu behar da. Handia da oraindik lana, eta lan hori, ahalik eta modu isilenean eginez gero, orduan eta hobeto.

Eta presoeng inguruan?

Beharrezkoa da aurrerapausoak ematea, eta txikiak badira ere, gertatu dira, baina beldur naiz ez ote garen berriz korapilo batean sartu. Zentzu honetan ere, diskrezioz jokatzeko izan da nire erantzukizuna. Ekarpenak egin ditut, eta berdin jarraituko dut. Nekaezinezkoa den gai bat da, erantzukizun zuzena beste batzuen bada ere.

Independentzia, erabakitzeko eskubidea... Bakoitzak leku batean kokatzen du langa. Zein da jomuga?

Euskal gizartearen borondatea da nire langa. Euskal herritarren ordezkaria naiz, herritarren borondateari bide ematea eta beraiek marraztu nahi duten etorkizuneko Euskadi eraikitzea da nire erantzukizuna. Horretarako, Euskadiri estatus berria eskaintzea da nire proposamena, eta Europan nazio gisa erabateko aitortza lortu eta esparru guztietan autogobernu maila altuenarekin jokatzeko.

Maite Asensio | Zabuzibuegitasmoaren arduraduna

“Haurrekin parkean zein etxean jolasteko tresnak eskaintzen dizkiegu gurasoei”

Durungaldeko herrietako familien %62 gaztelaniaz aritzen da etxean. Datu kezkarria dela iritzita, Amankomunazgoak Urtxintxa eskolagaz batera Zabuzibuegitasmoa jarri du martxan. Hurrengo hitzordua gaur izango da, Durangon, Ezkurdiko jolas parkean

>JONE GUENETXEA
Zein da Zabuzibuegitasmoaren helburua?
Helburu nagusia familia transmisioan eta hizkuntza ohituretan eragitea da. Horretarako, guk tresnak eskaintzen ditugu. Guraso askok eta askok euskara jakin arren, ez dituzte euskarazko jolasak ezagutzen. Horregatik gurekin ondo pasatzeaz gain, aurrerantzean euren haurrekin parkean, etxean... jolasteko tresnak eskaintzen dizkiegu.

Herri batzuetan jarri duzue martxan. Zelako erantzuna jasotzen ari zarete?
Erantzuna ona izan da orokorrean. Iurretan eta Durangon egin ditugu saio batzuk, eta ezin gara kexatu. Gurasoei, hasieran, kosta egiten zaie gerturatzea, baina bertan daudenak gozatzen ikusi eta pixkanaka gerturatzen dira. Haurrek ezin dute parte hartu helduen laguntzarik gabe, jolas asko binaka egitekoak baitira, eta horregatik askotan haurrak dira gurasoak parte hartzera bultzatzen dituztenak. Guk ulertzen dugu batzuetan gurasoei bat-batean kalean jolasten hasteak lotsa sortzea, baina hori alde batera utzi eta parte hartzera animatu nahi ditugu.

Zer lan dinamika duzue?
Parke baten ondoan jartzen gara. Aurrez, kartelak jartzen dira eta zirkularrak banatzen dira eskoletan. Ondoan ditugun gu-

raso eta haurrekin hasten gara jolasak egiten, eta begiratzera inguratzen direnak animatzen saiatzen gara. Borobilean jarri eta lehenik eta behin, jolasak abestia badu, hori erakusten diegu. Guztien artean 3-4 aldiz abestu ondoren, jolasa nola egiten den azaltzen diegu. Poliki-poliki jolasa egiten hasi eta ikasi dutela ikusten dugunean, musika eta guzti egiten ditugu jolasak.

Euskararen erabileraren arloan, familia barruko transmisioan eragitea zaila izaten da. Arlo horretan, zein da egoera une honetan?
Ohiturek eragin handia dute, eta horiek aldatzea oso zaila izaten da. Haurrek helduek egiten dutena errepikatzen dute, eta gu ez bagara eredu, ezin diegu besterik eskatu. Gurasoek badute horren inguruko kezka edo interesa, baina agian ez dira konturatzen horrek duen garrantziarekin. Apurka-apurka egin beharreko gauzak dira, gu oraingoz jolasetan edo aisialdian eragiten hasi gara, baina beste esparru asko daude lantzeko.

Sarritan umeei euskaraz egiten dieten gurasoek euren artean gaztelaniaz dihardute. Ikusi al duzue halakorik?
Herri guztietan ikusten dira horrelako kasuak. Ez dira konturatzen haurrei mezu bat eman eta ondoren beraiek kontrakoa egiten dutela. Haurrek euskaraz



egin dezaten nahi dute, baina eurek beste mezu bat ematen diete haurrei. Gaztelaniaz egiten duten bakoitzean, euskaraz gauza guztietaz ezin daitekeela hitz egin esaten diete haurrei. Hartara, helduen ohitura horiek kopiaitzen dituzte seme-alabek, eta gurasoak ez dira ohartzen seme-alabei egindako kalteaz.

Egitasmoa martxan jartzen duzuenean, herri batetik bestera alde handia dago?
Herri txikietan gehiago animatzen dira. Herri handietan, gehiago kostatzen zaie. Parke desberdinetan elkartzen dira, eta gaur Ezkurdin dagoena bihar Tabiran egon daiteke. Herri txikietan ez dago arazo hori,

eta egitasmoari jarraipena ematea errazagoa da. Hala ere, behin etortzen denak berriz errepikatzen du gehienetan.



ABADIÑO

Maiatzak 9 - Pinoko parkean, Traña Matiena. 17:00etatik 18:00etara (euria bada, Traña plazan)

Maiatzak 16 - Pinoko parkean, Traña Matiena. 17:00etatik 18:00etara (euria bada, Traña plazan)

Maiatzak 23 - Pinoko parkean, Traña Matiena. 17:00etatik 18:00etara (euria bada, Traña plazan)

Ekainak 6 - Gaztañodiko parkean, Zelaieta. 17:00etatik 18:00etara (euria bada, elizpean)

Ekainak 13 - Gaztañodiko parkean, Zelaieta. 17:00etatik 18:00etara (euria bada, elizpean)

Ekainak 14 - Muntzaratzeko parkean. 17:00etatik 18:00etara.

Ekainak 20 - Pinoko parkean, Traña Matiena. 17:00etatik 18:00etara (euria bada, Traña plazan)

Ekainak 21 - Muntzaratzeko parkean. 17:00etatik 18:00etara.

ELORRIO

Maiatzak 4 - Herriko plazan (euria bada, arkupean) 17:00etatik 18:00etara.

Maiatzak 11 - Herriko plazan (euria bada, arkupean) 17:00etatik 18:00etara.

Maiatzak 18 - Herriko plazan (euria bada, arkupean) 17:00etatik 18:00etara.

Maiatzak 25 - Herriko plazan (euria bada, arkupean) 17:00etatik 18:00etara.

Ekainak 7 - Herriko plazan (euria bada, arkupean) 17:00etatik 18:00etara.

Ekainak 14 - Herriko plazan (euria bada, arkupean) 17:00etatik 18:00etara.

Ekainak 21 - Herriko plazan (euria bada, arkupean) 17:00etatik 18:00etara.

Ekainak 28 - Herriko plazan (euria bada, arkupean) 17:00etatik 18:00etara.

DURANGO

Maiatzak 3 - Ezkurdin (euria bada, ondoko arkupean) 17:30etik 18:30era.

Maiatzak 11 - Tabiran (euria bada, arkupean) 17:30etik 18:30era.

Maiatzak 12 - Tabiran (euria bada, arkupean) 17:30etik 18:30era.

IURRETA

Maiatzak 9 - Amilburu plazan (euria bada, frontoian) 17:00etatik 18:00etara.

Maiatzak 17 - Amilburu plazan (euria bada, frontoian) 17:00etatik 18:00etara.



Durangoko azoka

Lanean ari gara merkatu plaza-aren egoera hobetzeko, gure ustez, udalak ahaztu samar izan duelako azken urteetan. Ildo horretatik, tartean sartuta gauden eragile guztiek indarrak batu behar izan ditugu: baserriar ekoizleek, elikagaien merkatuko saltzaileek, Durangoko dendariak, Urkiola Landa Garapenerako Alkartek eta guk geuk, hau da, udalak Azokako Mahaian dituen ordezkariak.

Helburua argi eta garbi dugu denok, ondotox baitakigu zenbateko onura ekar dezakeen. Araudia idatzi dugu, Azokako Mahaia sortu dugu, eta hainbat azoka ikustera joan gara ideiak jasotzera. Adibidez, ereduak diren Tolosako eta Ordiziako azoketan izan gara.

Denok, EAJ-PNV izan ezik. BILDU, ARALAR eta PSE-EE alderdiek mozioa onetsi genuen 2011ko uztailan, ordenantza sortzeko eta baserriarren azoka biziberritzeko. Hala ere, EAJ-PNVk trabak besterik ez ditu jarri, eta ez dizkigu behar genituen baliabideak eskueran jarri. Laguntzarik eman ez, baina kritika ugari egin eta gezur asko esan ditu.

Ekoizleak kexaka ari ziren, birsaltzaileak zeudelako eta baliabide gutxi zutelako; auzokoei eta erabiltzaileei zikinkeria eta nahasmena aipatzen zituzten; eta dendariak erakargarritasun urria, Durangoko merkatua azkenetan zegoela. Bien bitartean, zertan ari zen EAJ-PNV?

Egia esan, gehien amorrarazten gaituena da, batetik, ez duela ezer egiten; eta, bestetik, gainerakoek egin dugun lana gutxiesten duela. Hala ere, tinko jarraituko dugu geure horretan, gure ustez, Durangok azokako plaza ederra izan behar duelako, produktu onez hornituta, gaikako azokekin eta jarduerekin (txakolin-azoka, gazta-azoka, etab.). Ez dugu ahalgin horretan amore emango, tartean gezur ugari esan eta zango traba egin arren. Durangoko azoka ereduak izango da; lortuko dugu.

#M18Plazara

Apirila amaitzen ari da, eta dagoeneko M18Plazara ekimenaren prestaketan buru-belarri gabilta. Hau da, datorren maiatzaren 18an Euskal Herriko 200 plaza baino gehiagotara euskal preso politikoen eskubideen aldeko aldarria jendarteratuko duen mobilizazio deszentralizatua.

Espetxe politikaren aurpegiak krudelena ikusi dugu azken asteetan, ondorio latz eta atzeraezinak pairatuta eta etengabe tragediarekin harremanetan. Horren erakusle dira Xabier Lopez Peña eta Angel Figuroaren heriotzak, Bigarren Ibarra edo Jabi Martinez Izagirren gertukoak izandako istripuak edo Puerto, Sevilla edo Mureten egindako eraso fisikoak. Durangon ere krudelkeriaren hainbat adibide ditugu, haietariko batzuk ditugu ondokoak; izan ere, krudelkeriaren erakusle da Aitor Virunbralesek eta Aitziber Coellok pairatzen duten isolamendua; horren ondorioz, 22 ordu ziega barruan egoten dira, eta ez dute beste presoak duten eskubidea kartzelako baliabideak erabiltzeko: tailerrak, kiroldegia... Krudelkeriaren erakusle da Durangoko presoen haurrek egin behar dituzten bidaia luzeak: Hize Andueza (Murtzia), Nahia Palacios (Saint Maur), Peru Virunbrales (Kordoba), Ilazki Fraile (Badajoz). Krudelkeriaren erakusle da presoek behar duten tratamendu medikoa etengabe ukatua izatea. Bada garaia giza eskubideak era nabarmenean

urratzen dituzten salbuespeneko neurriekin amaitzeko. Euskal jendarteko zati handi baten sufrimendua eta antsietatea luza-tzeaz gain, konponbidea eta bakea definitiboki lortzeko bidean traba besterik ez dute egiten.

Herriraren aburuz, Madril eta Parisen nagusi den esku-bide urraketa eta inboluzioaren aldeko jarreraren aurrean, herritarren protagonismoa da errezetarik onena. Espazio berriak ireki, adostasunak handitu eta jendartearen baitan espetxe politikaren erabateko aldaketaren alde dagoen aldeko iritzia modu eraginkorrean artikulatzeko. Horretarako, eragileon inplikazioa behar dugu, espetxe politikaren aldaketa bultzatu, preso eta iheslarien itzuleran eta bakerako bidean berriro ere itxiko ez diren ateak zabaltzeko.

Bakoitzak bere esparrutik, dituen aukeren arabera eta ego-kien baloratzen duen ekarpena eginez, bultzada eta ekimen guz-tiak aberasgarriak dira. Borondateen metaketa ezinbestekoa da, horregatik gonbidapen zabala egiten dugu Durangoko pertsona, eragile, talde, ordezkari eta instituzioak gurekin batera lan egi-teko. Durangoko plazak bete nahi ditugu maiatzaren 18an, modu irekian, argian, koloretsuan, irmoan eta masiboan. Aldaketaren nahia eta beharra irudikatu nahi dugu. Onerako den aldaketa, giza eskubide, konponbide eta bakearen alde. #M18Plazara


Herrira

gaindituko duena. Hemen gauden eragile sindikal eta sozialok krisialdia hasi zenetik burutzen ari diren politika hauek salatu izan ditugu eta borrokatu izan ditugu. Edozelan ere, premia-koak diren salaketa eta borroka hauekin batera, harago joan nahi dugu, euskal jendarteari alternatiba eskaini nahi diogu. Beste eredu bat posible dela aldarrikatzetik eredu hori eraikitze-ra egin nahi dugu jauzi.

Horregatik, prozesu sozial oso bat bultzatzea erabaki dugu. Alternatiba hori eraikitzeko prozesu oso batez ari gara eta lehen pausoa Euskal Herrirako Eskubide Sozialen Gutuna osatzea izango da. Gutun hau aldarrikapen bitartekoa izango da, baina ez hori bakarrik, gutun hau lehenbiziko pausoa izango da euskal jendarte osoaren indarrak batzeko eta burutzen ari diren borroka ezberdinak helburu argien inguruan bateratzeko. Eskubide sozial eta laboraletan zein justizia sozialean oinarritutako ere-dua nahi eta behar dugu, eta hau eraikitzeko prozesua, Euskal Herriarentzat eredu propioa eraikitzeko prozesua abiaraziko dugu.

Maiatzaren 30erako deitu dugun greba orokorra beharrezkoa da, ezinbestekoa da, "nahikoa da!" ozen eta indarrez oihukatze-ko gobernu ezberdinetatik datozen eraso guztien aurrean eta, horrekin batera, alternatiba eraikitzeko prozesu horri hauspoa emateko bultzada.

LAB Durangaldea



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

**Bixente Kapanaga 9, 48215 -
astekaria@anboto.org**

• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Datuok barik, ez da gutunik argitaratuko.

Eskubide sozial eta laboral duinak

Idatzi honen bidez, Durangaldean datorren maiatzaren 30eko greba antolatzeko egingo dugun bilerara gonbidatu nahi zaituztegu. Greba deitzaileak Euskal Herriko hainbat sindikatu eta eragile sozial gara, baina badakigu auzoetan, herrietan eta eskualdeetan beste eragile asko zaudetela egoera hau aldatzeko gogoz.

Bilera: Maiatzaren 8an, 19:00etan, Pinondo Etxean (Durango)

Urterik urte, gobernu ezberdinak hartzen ari diren erabakiekin krisi ekonomikoan sakontzen ari dira. Konstituzio erreformek, dekretuzarrek, oinarritzko legeak, murrizketek eta erreforma ezberdinek helburu bakarra daukate: aberatsek gero eta botere eta diru gehiago eskuratzea langileen pobretze orokorraren, langabezia masibo, eskubideen galera eta zerbitzu publikoen murrizketen bitartez. Neurri hauek, gainera, era guztiz antidemokratikoak egiten ari dira, inposaketa erabiliz, inposaketa delako modu bakarra herritarren kontrako eraso horiek burutu ahal izateko.

Horregatik, politika publikoen lehentasunak goitik behera aldatzea aldarrikatzen dugu eta Euskal Herriko gaur egungo instituzioei dei egiten diegu hori lortzeko beharrezkoak diren iniziatiba instituzional, politiko eta legislatibo guztiak har ditzatela.

Instituzio horiei zera exijitzen diegu: estatutik inposatu nahi dituzten neurriak ez aplikatzeko; defizit publikoaren mugak ez onartzeko, eta iniziatiba har dezatela Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten pertsona guztiek bizi baldintza duinak izan ditzaten; enplegu duin, kalitateko zerbitzu publiko unibertsal eta prestazio sozial egokiak izan ditzaten, alegia, horixe baita, gainera, krisitik irteteko estrategiarik onena. Sistema berri bat pertsona guztien aukera berdintasunean oinarrituta eta lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko egungo dikotomia

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko maiatzaren 3a
11. urtea - 498. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia
eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhua Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako,
Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

> MUSIKA



Unai Uribe, behean, erdian jesarrita. J.A. Marquez

“Hasierako ideietan geratu barik, gauzei buelta gehiago eman diegu”

Zain Berrizko laukotearen ‘Egunsenti berri baten bila’ bigarren diskoaz jardun du Unai Uribe abeslariak

> ITSASO ESTEBAN

Asteon heldu zaizkizue disko berriaren aleak, ezta?

Astelehenean heldu zitzaizkigun Berrizera, eta datorren astean Bilbon SGAEko egoitzan egingo dugu aurkezpen ofiziala. Lehenengo diskoa bezala, Baga Biga disketeagaz kaleratu dugu. Mila kopia atera ditugu.

‘Egunsenti berri baten bila’ da izenburua. Zer ideia dago diskoaren atzean?

Gizartea hoztuta moduan dagoela ikusten dugu, eta horren isla da diskoaren azaleko irudia. Kontrastea egiteko, baina, auto-karabana batean agertzen gara libretoko argazkian: kanpoko hotzetik babestuta bidea egitera goazela, denok elkarrekin egunsenti berri horren bila goazela adierazi gura dugu.

Hamaika kantakoa da diskoa. Asko geratu dira kanpoan?

Ez, egia esan, dauzkagun heinean kantak grabatzen saiatzen gara. Hasieran planteatu genuen disko laburra egiteko aukera, baina pena ere ematen zigun kanta batzuk kanpoak uzteak.

Zenbat denbora eman duzue diskoa prestatzen?

Ez da neurtzen erraza, baina serio-serio, esango nuke azken sei hilabetean ibili garela: maketa grabatzen hasi ginenetik. Apurka-apurka joan gara, gure erritmora. Kantuak aurrera

zihoazela ikustean erabaki genuen grabatzea. Prozesu nahiko geldoa izaten da gurea.

Asko luzatu zen aurreko diskoaren aurkezpen bira?

Luzatu zen, bai, eta horrek eragin du bigarren diskoa apur bat atzeratzea. Dena den, diskoaren prestaketetan ere ez ditugu kontzertuak erabat utzi.

Interneten daukazuen ‘making off’-ean ikusten denez, oso ondo pasatu duzue grabazioan...

Asko disfrutatu dugu: Lorentzo Recordsen Aitorrekin grabatzea

“

Asko disfrutatu dugu grabazioan: Lorentzo Recordsen Aitorrekin aritzea oso eroso da guretzat”

oso eroso da guretzat: oso gustura egon gara. Grabazioa neguan egin dugunez, estudioko orduak lanorduekin moldatu behar izan ditugu, eta egia esan, horrek badauka bere alde gogorra.

Kantak sortzeko prozesua ere hain gustagarria izan da?

Konposatzeko era apur bat aldatu egin dugu disko honetarako: kasu honetan, Asierrek pisu handiagoa izan du gitarrak konposatzeko orduan. Lokalean erabiltzeko, zortzi-pista bat erosi genuen, eta hainbat proba egin ditugu. Hasierako ideietan ge-

ratu barik, gauzei buelta gehiago eman diegu. Detaile txikiak ematen dute, baina konposaketa aldetik osoagoa da disko hau.

Musikalki anitzagoa da hau ‘XXI. mendeko piratak’ baino?

Estilo aldetik antzekoa da: melodia asko dauzka, kanta azkarra-goak eta lasaitxoagoak... Baina gitarra gehiago dago, eta badauka beste puntu bat. Hitzetan ere, laguntza eduki dugu: buelta gehiago eman diegu letrei, eta gauza oso politak atera dira. Oso gustura gaude.

Disko hau deskribatzeko balio lezakeen kanta aukeratzetik?

Nik uste *Egunsenti berri bat* kantak, esaterako, badaukala ukitu berri hori: asko landutako gitarrak, esaterako. Hasieran, zalantza asko eragin zigun kanta horrek, baina azken emaitzarekin bereziki gustura geratu gara.

Bideoklipa grabatzeko hitzordua, domekan

Orain zortzi urte grabatu zuen Zain taldeak maketa. Bigarren diskoa aurkeztera doaz, Unai Uribe, Alberto Sanchez, Asier Cosme eta Joshua Froufe berriztarak, datorren astean.

Unai abeslari eta gitarra-ristaren berbetan, inoiz baino hobeto dago Zain, talde bezala: “Disko hau prestatzeak indarberritzeko lagundu digu: ilusioa berpiztu digu”. *Egunsenti berri baten bila* honetarako, “borroka gehiago egin dugu” dio berriztarrek.

Disko berriaren aurkezpen txartel gisa baliatuko duten bideoklipa grabatuko dute taldekideek domekan: “Diskoaren ideia islatuko dugu bideoklipen: testuinguru hotzetik egunsenti berri horren bila zelan goazen”. Kontzertu baten simulazioa egingo dute, eta Judit Fernandezek zuzenduko du grabazioa.

Etxean, Berrizen, aurkeztuko du maiatzaren 25ean Zainek disko berria; eta ekainaren 1ean, Durangoko Plateruenean.



J.Fernandez

> **DANTZA**> **ITSASO ESTEBAN**

Dantza eta antzerkia, argiztapena eta testua uztartzen ditu Ertza taldearen *Act Of God* ikuskizun poetikoak. Asier Zabaletak zuzenduriko lana da. Oholtzan, Asier Zabaleta bera, Eneko Gil, Lorentxa Iturralde, eta Noemí Viana dantzariak jardun dute dantzan, eta Ander Lipus aktorearen ardura izan da *Act Of God* honen dramaturgia.

Xabi Erkiziak landutako soinu efektuek eta Bachen musikak laguntzen ditu dantzarien mugimenduak

Sinesmenari, erlijioari, eta kontraesanei buruzkoa da obra. Ez du erantzunik ematen; galdera esentzialak egiten ditu. Berbarik barik, asko adierazten du *Act Of God* honek: “Dantzatutako ulua” da, testua idatzi duen Harkaitz Canoren ahotan.

Xabi Erkiziak landutako soinu efektuek, eta Bachen musikak laguntzen dituzte dantzarien mugimenduak.

‘Act Of God’: galdera esentzialak dantzan, Ertza konpainiagaz

Elorrioko Arriolan eskainiko du gaur, 22:00etan, Act Of God Ertza taldeak

> **DOKUMENTALA**

Poloniatik Argentinarako emigrazioaren istorioa

Maiatzaren 9an emango dute Wojciech Staron zuzendari poloniarren dokumentala, Elorrion

Hilean Behin dokumental zikloaren maiatzeko hitzordua izango da datorren egueneko Elorrioko Iturri kultur etxeko 19:00etako. “Adiskidetasun txiki baten gaineko istorio handi bat”, *Argentinian lesson* dokumentala emango dute.

Wojciech Staron zuzendari poloniarren lana da *Argenti-*

“Adiskidetasun txiki baten gaineko istorio handi bat” da ‘Argentinian lesson’ dokumental honetakoa

nian lesson. “Istorio intimo bat”: zuzendariaren familiak Poloniatik Argentinako Misiones probintziara egindako bidaia, migrazioa, erakusten duena.

Familiako zortzi urteko Jan semeak Marcia neskatila ezagutuko du bizileku berrian, eta lagun handiak egingo dira: “Hel-duen bizitzako errealitate korapilatsuez inguratutako haurtzaro” horiez dihardu filmak.

Nazioarteko hamar zinema jaialditan baino gehiagoan saritu dute eguenean Elorrioko kultur etxean ikusgai izango den dokumental hau. Aurretik, *Siberian lesson* (1998) ere saritu diote Staron zuzendariari.

> **MUSIKA**

Artearen eta musikaren inguruko udalekuak

Durangoko musika eskolan egingo dituzte saioak, ekainaren 24tik uztailaren 5era

Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolaren eskaintza da Durangoko udaleku musikalek eta arte-udalekuena. Ekainaren 24tik uztailaren 5era bitartean egingo dituzte saioak, 10:00etatik 14:00etara.

Atzo zabaldu zuten epea interesa dutenek izena eman dezaten: Musika Eskolaren www.durangomusika.net webgunean bete daiteke inskripzio orria. Informazio gehiago behar duenak, aipaturiko helbide horretan topatuko du argibide gehiago.

Lau eta hamabi urte bitarteko neska-mutikoei zuzendurikoa da ikastaroa, eta musika,

dantza, antzerkia eta eskulak uztartuko dituzte udalekuan. Artearen askotariko adierazpideak jorratuko dituzte, adin ezberdinei egokituriko saioetan.

Zazpigarren urtez antolatu dituzte Durangoko Musika Eskolan udalekuak: egonkorturiko ekimena da, beraz.

Atzo zabaldu zuten izena emateko epea: eskolaren webgunean bete daiteke matrikulazio orria

GEURE DURANGALDEA**JON IRAZABAL**

Gerediagako kidea

**Oroimena**

Joan da maiatzaren lehena. Langileriarentzako egun berezia. Egunkarian irakurri dut hil honetan argitaratuko dituzte Durangoko trenaren lan-tegiak botatzeko baldintzak. Zerrenda zain dago, hau ere pikutara joateko, Durangoko tren geltoki zaharra. Eurekin desagertuko da Bilbotik Donostiarako tren gune nagusia.

Mendizabal, Ortiz de Zarate, Mikeldi, Olma eta beste hainbat lantegi izan dira Durangoren motorra. Arkitektura, urbanismoa, sindikalgintza, politikagintza eta gure gizarte soziala definitu eta finkatu dutenak: garenaren ardatz eta gure historiaren ikur nagusiak.

Baina... pare bat urte barru, mundu horrek argazki zaharretan eta historia liburuetan bakarrik iraungo du. Penagarria izango da, baina hala dirudi. Europan, ez da gaitza XX. mendeko katedralak, lantegiak, erabilpen berrietara atonduta ikustea. Hemen ez dugu izan horientzako errukirik. Badirudi hiru izango direla amnistiaturiko bitxikeriak. Alluitz kaleko lorategian dirauen Mendizabal lantegiaren sarrerako zutabe biak. Landako Erakustazoka alboko plaza-ko Olma burdinolako tximinia, eta Alluitz kaleko trenbide pasagunearen ondoan dagoen trenbideko transformadorea. Hainbat eraikuntza babesten duen Durangoko plangintza urbanistikoan hiru bitxikeria hauek jaso dute XXI. mendea ezagutzeko onespina. Ez zegoen “indultu”rik merezi zuen beste elementurik?

Harriak alde batera utzita, gogora dezagun aurten 75 urte betetzen direla UGTko Antonio Ibarra eta Anastasio Arnaiz, ELA-STVko Juan Eskubi eta Faustino Arrieta durangarrak faxismoaren fusil beltzek erail zituztela langileriaren alde borrokatzeagatik. Maiatzaren lehen honetan, eurei gure esker ona eta ohore!

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

lokaletik **AT**

MAIATZAK 3 22:00etan
LOKALETIK AT: INNER DESTINY + MORE TOO. Doan.

MAIATZAK 9 19:30ean
DF BERTSOZALE ESKOLA
UXUE ALBERDI. “Begirada feminista bat”. Izen-ematea: 10 euro.

MAIATZAK 10 22:00etan
INOREN ERO NI + Borja Estankona
Berriaren 10. urteurrena. 5-10 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

ENCERRONA
PEPE VIYUELA
Maiatzak 11 • 19:00

URTAROEKIN JOLASTUKO DUGU
KANTINELAS TEATRO
Maiatzak 12 • 17:00 / 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

> LEHIAKETA



Anton Urresti mendarorak jaso zuen Berrizko Kaleko Margo Lehiaketaren lehenengo saria.

‘Oxido en el ambiente’ izeneko koadroa hautatu dute irabazle

Berrizko kultur etxean daude ikusgai lehiaketara aurkezturiko margolanak

Anton Urresti mendarorak irabazi du Berrizko Kaleko Margo Lehiaketa. Urrestiren *Oxido en el ambiente* lanak batu du epaimahaiaren boto gehien, eta egileak jaso du 600 euroko lehenengo saria. Txomin Pinillaren *Desde el cementerio* lanari eman diote, bestalde, Berrizko egile baten lanik onenaren saria.

Gasteizera eta Corellara joan dira, hurrenez hurren, Berriz-

‘Desde el cementerio’ margolanagaz eskuratu du Txomin Pinillak herriko lanik onenaren saria

ko Kaleko Margo Lehiaketaren bigarren eta hirugarren sariak. Eduardo Alsasua gasteiztarak *Desde el anden* margoagaz lortu du bigarren saria, eta, Albert Sesmak *Calle estación* izeneko lanagaz hirugarrena.

Hogeita bat margolarik parte hartu dute aurten, Berrizko Kaleko Margo lehiaketan. Guztien lanak erakusketan daude orain, kultur etxean.

> POESIA

Durangoko Museoan, Pentsamenduaren Poesiak elkartuta

Bi iluntzerako egitaraua eskaini du aurten, Durangoko Pentsamenduaren Poesia zikloak

Maiatzaren 2 eta 3rako hitzorduek ekarri ditu Pentsamenduaren Poesia ekimenaren seigarren edizioak Durangoko Arte eta Historia Museora: berbaldi bat eta poesia errezitaldi bat izango dira jaialdiaren barruko egun bakoitzean.

Gaur izango da jaialdiaren bigarren hitzordua. *Filosofia eta poesia: errautsaren memoriak* izenburuko saioa eskainiko du, Felipe Juaristi idazleak.

Juaristiren emanaldiaren ostean, Leire Bilbao, Luis Garde eta Ione Gorostazu poeten sorkuntzak egileen euren ahotik entzuteko aukera izango da, Durangoko Arte eta Historia Museoko hitzorduan. Museo horretan, 19:00etan, dira VI. Pentsamenduaren Poesia zikloaren hitzorduek.

Felipe Juaristik eskainiko du ‘Filosofia eta poesia: errautsaren memoria’ berbaldia, gaur, 19:00etan

Miguel Sanchez Ostiz idazle nafarrak zabaldu zuen atzo poesia jaialdia. *Cuando ya nada se espera* hitzaldia eskaini zuen Sanchez Ostizek, eta euren olerkiak errezitatu zituzten, ostean, hiru poetak: Kepa Muruak, Peru Magdalenak, eta Castillo Suarezek eskaini zituzten euren aleak.



berriak 10 urte

zatoz gurekin
ospatzera

Webgune berezia:
www.berria.info/berriataldea

Izan zaitz
berrialaguna

Antolatzailea: **berria** Laguntzailea: **hitza**

berria

hamarnaka
kontatzekoak gara

Babesleak:

BADA BESTE MODU BAT

Maiatzak 10, Durango

Kontzertua

Inoren Ero Ni

Borja
Estankona

22:00etan
Plateruenean



Sarrerak aurrez:

- Interneten: www.berria.info/berriataldea
- Durangon: **Plateruenean**
- Zornotzan: **Urtza** tabernan
- Elorlion: **Parra** tabernan
- Abadiñon: **Larrano** tabernan

Sarrerak egunean bertan: Plateruenean

Sarrera: 5 € berrialagun harpidedunentzat
eta berrialagunentzat. Gainerakoentzat: 10 €

Oharra: Harpidedun edo BERRIALagun txartela erakustea ezinbestekoa izango da, eta txartel bakoitzarekin bi sarrera eskuratu ahal izango dira gehienez.



GREMIOEN GIDA



DEKORAZIOA



AROTZERIA



ITURGINTZA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz.
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaioarnizatuak.com

EGUIA S.L.
AROTZERIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

Soleguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 601 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtinga.nieveserra.es

urtinga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



GARBIKETA



ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goieta, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ARGIZTATZE TEKNIKAK
MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



LOREZAINNTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Itsaso Gartzia | Tabirako saskibalo klubeko presidentea |

“Irabazi zein galdu, taldea zorionduko dugu; play offa garaipen handia da”

Tabirako saskibalo klubaren gaurkotasunari errepasoa egin dio Itsaso Gartzia presidentek

> JOSEBA DERTEANO

Emakumeen talde nagusiaren denboraldi bikaina, udako eskola eta zuzendaritzaren kudeaketa izan ditu berbegai, besteak beste. Emakumeen taldea goraipatu du: “Kantxan inork baino gogo handiagoa jartzen dugu”.

Tabirako-Baqueko emakumeak play offean sartu dira. Espero zenuten?

Egia esateko, denboraldi hasieran ez genuen helburu hori buruan. Abuztu amaieran bederatzi jokalarigaz bakarrik geratu ginen, eta juniorreko jokalariekin indartu genuen taldea. Apurka-apurka, talde barruko lana fruituak ematen hasi zen, eta play-offera sailkatu gara. Ez daukagu altura handirik, baina dudarik gabe, kantxan inor baino indar eta gogo handiagoa jartzen dugu. Irun, Bera Bera... Play offa gaitza da, baina inoiz ez da itxaropena galdu behar. Dena den, irabazi zein galdu, han egongo gara taldea zoriontzeko. Play-offa jolastea garaipen handia da taldearentzat.

Alberto Molina entrenatzaileak eta Miren Manzisidor jokalariek taldea utziko dute, eta omenaldia egin zenieten.

Albertok betidanik entrenatu du Tabirakon. Klubaren balioak

eta filosofia oso ondo transmititu dizkie bere jokalariei, berak oso barruan baititu. Bartzelonara doa bizi izaten, eta zoritxarrez, entrenatzaile ona eta pertsona ezin hobe galtzen ditugu. Noiz-bait Durangora bueltatzen bada, klubak beso-zabalik hartuko du.

Mirenek bere bizitza osoan jolastu du Tabirakon. Badarama urte batzuk seniorren taldeko erreferente izaten, eta jokalaria gazteentzako eredu bat da. Ez dugu jolasten ikusiko, baina klubaren inguruan ibiliko da.

Gizonak espero baino makalago aritu dira?

Nire ustez, mutilek ere denboraldi ona egin dute. Goi-goian ez egotea ez da porrot bat moduan ikusi behar. Aurtengoa, trantsizio denboraldi moduan ikusi behar dugu. Azkenengo urteetan jokalaria beterano batzuek saskibaloia utzi dute, eta aurten beheko mailetakoko jokalarien belaualdia iritsi da. Denbora behar dute goiko mailan finkatzeko.

Zelan ikusten duzu Tabirakoren kirol etorkizuna?

Nesken arloan, ez daukagu arazorik, urtero iristen zaizkigulako ikastetxeetako taldeetatik jokalaria gehiago talde federatuak osatzeko. Mutilen arloan, kontrara: epe motzean ez dago

arazorik, baina epe ertainean, egoera arduratzekoa da. Azkeneko urteetan ikastetxeek arazoak dituzte mutil taldeak sortzeko, eta hemendik 3-4 urtera, larri egon gaitezke goiko mailetakoko mutilen taldeak osatzeko.

Zergatik gertatzen da? Zein da irtenbidea?

Futbolaren indarragatik, eta ikastetxe batzuek ez diotelako mutilen saskibaloia horrenbeste garrantzi ematen. Hori akats bat da. Futbolak ezin du hainbeste mutil bereganatu, eta saskibaloia hiltzorian utzi. Irtenbidea dela-eta, modu bakarra da klubaren eta ikastetxeen arteko lana hurbilagoa eta estuagoa izatea. Ikastetxeetako lana oinarritzakoa da Tabirakoren etorkizunerako.

Zuzendaritza Batzordeak zelan bizi du denboraldia?

Tabirakon atzetik bi mila pertsona inguru daude, jokalaria, entrenatzaile, bazkide, babesle, familia eta zaleen artean. Ulergarria da pertsona horietako norbait zuzendaritzako erabaki batzuekin ados ez egotea. Guri ere, batzuetan bihotzak gauza bat esaten digu, eta klubeko beharra beste bat da, eta argi dago norantz jo behar dugun. Pertsona horiei esan nahi diet, zuzenda-

ritzak beti klubaren interesak zaintzen dituela. Ezin diogu talde, entrenatzaile edota jokalaria bakarrik begiratu, klubaren osotasunari baizik. Lan itzela egiten ari dira; hemendik, nire esker beroena zuzendaritzako kideei eta kirol zuzendariari.

Udako eskola ere hurreratzen dabil apurka-apurka.

Ilusio handiz itxaroten dugu urtero. Ume askorentzat, lehen kontaktua izango da Tabirakogaz. Aurtengo arduradunak Matxalen Manzisidor eta Leire Moreno dira, beti ere, zuzendaritzak lagunduta. Ekainaren 24tik uztailaren 5era izango da udako eskola. Gure webgunean dago informazioa: www.tabirako.com.

Saskibaloiaz gainera, beste ekintza batzuk eskaintzen ditugu: tenisa, rokodromoa, atletismoa, igerilekura joatea... Aurten, nobedade bat daukagu, baina sorpresa izatea nahi dugu.

Zelan zaudete ekonomikoki?

Kluba ez dago ekonomikoki arriskuan, baina alde denetan lez, gerrikoa estutu dugu. Federazio Mendizabal diruzainaren lana azpimarratu gura dut eta eskerak ematen dizkiet Cafes Baque, Durango Kirolak, Simply, Sukia Eraikuntzak eta Durango Udalari, euren babesagatik.

> PILOTA

Azkarate pilota federaziorako presidentegai aurkeztu da

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzarako hauteskunde prozedura ireki du asteon hauteskunde batzordeak. Federazioa gidatzeko hautagaie-tako bat Fernando Azkarate pilotari ohi elorriarra izango da. *Euskal pilota bideratuz* lelopean, Azkarate presidentegaiak pilota munduan esperientzia handia duten lagunak izango ditu bere taldean: Garbiñe Usarrale, Unai Alzibar, J.A. Iñurriagarro, Josu Oleaga, Kepa Arroita Jauregi... Gaur, 12:00etan, Durangoko Kurutzia Hotelean aurkeztuko dute hautagaizta.

> HERRI KIROLAK

Maiztegiko talde biak sailkatu dira finalerako

Iurretako Maiztegi eskolan herri kirolean dabilzan benjaminetako talde biak (Maiztegi A eta Maiztegi B) Bizkaiko Txapelketako finalerako sailkatu dira. Finalerako txartelak hiru jardunalditan erabaki dituzte. Berriz izan zen aurreneko jardunaldia, Gernikan bigarren, eta Zerberion egin zuten hirugarren eta azkena, joan zen asteburuan. Finala maiatzaren 12an jokatu dute Basauriko Artunduaga kiroldegian.

> AUTOMOBILISMOA

Urienek maila onean ekin dio F3 txapelketari

Estreinaldi itxaropentsua izan du Igor Urienek Frantziako Paul Ricard zirkuituan. Zirkuitu bustiak eta pneumatikoen errendimendu eskasak podiumetik aldentu dute, baina bere mailan (Kopa F308) seigarren amaitu zuen zapa-tuan, eta bosgarren domekan: “Pozik noa, oraindik hobetzeko tarte dugu ikusita. Hemendik amaierara, aurreko tokietan ibili gaitezke”. Txapelketako bigarren lasterketa Portugalen izango da, maiatzaren 11n.

> ARETO FUTBOLA

Batzuen poza besteen tristezia bihurtuko da biharko derbian

Sasikoak mailaz igotzeko eta Kurutziagak mailari eusteko hiru puntuak behar dituzte



Sasikoak derbia irabazten badu, azken jardunaldian euren esku egongo da igoera, Abadiñoako Lagun taldearen kontrako derbian. Zalao Fuertes

> JOSEBA DERTEANO

Bihar, Sasikoak eta Kurutziagak Euskal Ligan jokatu duten derbia gakoa da talde bien helburua lortzeko. Hiru puntuak batzen dituenak hogeita hamai-ka eskutik dituela helduko da azken jardunaldira. Sasikoak asteburuan atseden hartuko duen Meatzari aurreratu, eta igoera postuan jokatu luke Abadiño-ko Lagunen kontrako derbia, hurrengo asteburuan. Kurutziagak, oster, Arabako EHU (hauek ere atseden dute asteburuan) aurreratu eta jaitsiera pos-

tuetatik kanpora itxarongo lieke Elorrioko Buskantzari.

Iaz maila galdu ostean, aurren Hirugarren Mailara bueltatzea "oso inportantea" litzatekeela adierazi du Geronimo Ugarte Sasikoako entrenatzaileak: "Proiektu berria lantzen ari gara kirol arloan zein klubaren egiturari, eta igoera proiektu horretan pauso berri bat ematea litzateke". Joan zen asteburuan Uxo liderraren kontrako berdinketan (1-1) Durangoko kiroldegia ia lepo bete zuten zaleei "poz bat emateko" modua ere izango litzateke.

Kurutziagak kantxan du begi bat eta bulegoetan bestea. Euskal Liga 16 talderako aurreikusita zegoen, baina 14k ekin zioten ligari. Teorian, azken sailkatuak galtzen du maila, baina kasu honetan ere bai? Iaz antzeko kasua gertatu zen, eta Federazioak zirkular bidez jakinarazi zuen talde bat jaitsi egingo zela. Aurren,

ez du oraingoz ezer jakinarazi, baina arrisku hori badago, Kurutziagak entrenatzaile Rober Perezek adierazi duenez.

Maila berean, Abadiñoako La-

gunek igotzeko aukera du, falta diren biak irabazita. Azkena, Sasikoaren kontrako derbia, ikusgarria izan daiteke, talde biak aukerekin heltzen badira.

Sasikoa Bk final bat du mailari eusteko bidean

Erandion, garaipena behar du jaitsieratik irteteko

Iñigo Martinez Sasikoa Bko entrenatzaileak argi adierazi du: "Asteburuko partidua final bat da. Galduz gero, mailari eustea ia ezinezkoa litzateke". Sasikoa B jaitsiera postuan dago Maila Gorenean, eta hiru puntu gorago du Astraburuko. Jaitsiera postutik libratzen den lehenengo taldea da Erandioko taldea. Liga amaitzeko hiru jardunaldien faltan, porrot bat zama astune-

gia izan daiteke. Behinena hiru puntuak batzea da, baina ez legoke txarto *averagea* euren aldera ekartzea ere. Joanekean 2-4 galdu zuten etxean.

Sasikoa B espero zena baino beherago dabil aurren, baina kontuan hartu behar da hiru-lau jokalarik kenduta, gainerako denak berriak direla, eta filiala den heinean, jokalarik batzuk lehen taldeagaz ere aritu direla.

ADITUAREN TXOKOA



KEPA ARROITAJAUREGI

Pilota teknikaria

Zast

Ia astebete joan da Bizkaia frontoian pilotazale bizkaitar guztiok, baita ez direnak ere, di-da batean (zast,...) aspaldian izan dugun pena handiena jaso genduala. Denok dakizue zertaz ari naizen; 'Pablito' apurtu egin zen.

Oraindino, bere hurrekoenak, berak gehien, mina kendu ezinda jarraituko dute. Hainbatean, ezingo du mina sekula kendu, berrizarraren unerik gozoena zapuztu zuelako zorigaitzoko orpazurdaren hausturak.

Kirolak inork nahi ez di-tuen halako kontuak ditu, eta pasa den domekan, giro bikainenean jokatzen ari zen finalean, gutxien espero zena gertatu zen. Kantxan eta inguruetan zeuden final handia izateko osagaiak. Ondo hasi zen finala, bi atzelariak pilota astintzen eta aurrelariak ausardiaz aurreko jokoari uko egin barik. Halako egoeratan ematen du onena Pablok, baina... Ezin izan zuen txapelketa borobildu.

Eta orain, bide luzea eta latza; lehenik errehabilitazioa, eta ostean, jokoa hartzea, biak ere zailak. Halere, aurretik lortutakoak ere ez dizkio inork oparitu, eta daukan guztia jarriko du berriztarrak. Ea laster gozarazten digun kantxan. Animo Pablo!

Dena den, pilotak jarraitu beharra dauka, eta badu zoriondu beharrekorik ere. GRAVN txapelketako finalak jokatu dira asteburuan Gasteizen, eta Antxia, M. Gonzalez eta R. Uriarte tarteko dira, favorito, gainera. Araiztegik ere finala jokatu du nesken gomazko paletan, gazteetan. Ea denen artean giroa gozotzen laguntzen diguten.

Maila berean, Abadiño-ko Lagunek igotzeko aukera du, falta diren partidua biak irabaziz gero

hitz

liburudenda

artekalea 14 durango 94 681 07 76

info@hitzliburudenda.com

Durangaldeko Baserritarren Elkarte



Murueta, 6
Tel.: **94 681 87 92**
48200 ABADIÑO

> FUTBOLA/ARETO FUTBOLA

Zaldua Maila Gorenera itzuliko da, bihar Berriatuko menderatzen badu

Futboleantzein areto futboleantzeigotzeko puntuan daude Durangaldeko hainbat talde



Asteburuan igoera lortu dezakeen Zaldua taldea, eguazteneko entrenamendu saioan.

> JOSEBA DERTEANO

Datozen hiru asteburuetan erabakiko dira igoerak eta jaitzietarak futboleantzein areto futboleantzein. Durangaldean igotzeko borrokan dabilta talderik gehienak. Futboleantzein, talde bik euren esku izango dute igoera asteburu honetan. Zaldibarko Zalduak etxean Berriatuko menderatzen badu, igoko da seguru. Orain

urte bi Maila Gorenera igo eta iaz jaitzi egin ziren. Asteburuan berriro igo daitezke. Abadiño ere igoera postuan dago, baina asteburu honetan igotzeko, beste partiduetan aldeko emaitzak behar ditu. Gazteen mailako Iurretakok (Maila Gorenean) ere badaki irabaziz gero igo egingo dela. Horretarako, igotzeko aukerak dituen Abadiño mende-

> PILOTA

Berasaluzek sei hilabete beharko ditu osatzeko

Akilesen tendoia apurtu zuen binakako finalean

Pasa den domekan, Pablo Berasaluzek binakako pilota finala bertan behera utzi behar izan zuen orkatila bihurritu eta Akilesen tendoian min hartuta. As-tehelen goizean erresonantzia magnetikoa egin zioten Quiron Kliniketan. Medikuen arabera, berriazarrak Akiles tendoia erabat apurtuta du. Atzo egin zioten ebakuntza. Hogeit egunen buruan errehabilitazio prozesua

hasiko du. Asegarceren webgunean informatu dutenez, guztiz erreuperatzeko sei hilabete beharko dituela uste dute medikuek.

Berrizko aurrelariak zaleen berotasuna jaso du aste osoan sare sozialetan. Ehundaka animo mezu jaso ditu. Ospitaletik, Berasaluze II.ak “eskerririk asko zuen babes guztiagatik” erantzun die mezuei.

Orain urte bi Maila Gorenera igo eta iaz jaitzi egin zen Zaldua. Bihar berriro igo daitezke

ratu beharko du. Nagusietan, Ohorezko Mailan dabilen Iurretakok, aldiz, derrigor batu behar ditu puntuak Sodupe liderraren zelaian, ezpabere, batere aukera barik geratu daiteke.

Presion Break eta Sapuberri
Areto futboleko Maila Gorenean Berrizko Presion Break taldeak igoera promozioa segurtatu dezake etxetik kanpora, Unta Ibarreko menderatu eta Scalibur eta Atxure Bakio taldeek euren partidua galtzen badituzte. Igoera postu zuzenean ere kokatu daitezke, baina Zorrotzako liderrak erraz irabazi behar lioke Ortuella azken sailkatuari.

Lehenengo Erregionalean, Durangoko Sapuberri liderra igo egin daiteke, euren partidua irabazi eta aldeko emaitzak egoten badira. Elorrioko B ere igoera postuan dago; helburua lortzen badu, maila bat beherago igoera lortu duen Elorrioko C ere igoko litzateke. Dantzari eta Gu Lagunak taldeek asko dute jokoa asteburuko derbian. Iurretako taldeak garaipena behar du igoeragaz amesten jarraitzeko; Durangoko taldeak, ostera, jaitziera postuetatik aldendu gura du.

> FUTBOLA

Futbola kalera aterako du Athleticek Durangon

Partidua domekan izango dira, Ezkurdin

Benjamin eta kimu mailako (9-13 urte bitartean) gazteei zuzenduta, Athletic Fundazioak kaleko futbito txapelketa antolatzen du. Bost jardunaldietatik bigarrena, Durangoko Ezkurdi plazan jokatu dute domeka honetan, 10:30etik 13:30era.

Txapelketaren helburua nagusia da kalean jokatzen den futbolaren naturaltasuna berreskuratzea. Horrela, lauko

taldeek bote gutxiko baloi txiki batez jokatu dute. Kale argiak eta hormak kantzaren parte izango dira, beti ere, ondo babestuta. Domekan, talde bi sailkatuko dira finalerdietarako: jardunaldiaren garailea eta antolatzaileen arabera, Athletic Cluben balioak ondoen irudikatu dituenak. Ekainaren 2ko finala San Mames zelaian jokatu da.

> AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durango Kulturala - Balmaseda

· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)

Abadiño - Plentzia

· Zapatuan, 18:00etan, Astolan

Zaldua - Berriatuko

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)

Iurretako - Derio

· Zapatuan, 15:30etan, Larrakozelain

Elorrio - Basauritar emakume

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden

> ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Kurutziaga - Sasikoa

· Zapatuan, 16:00etan, Landako kiroldegian

Abadiño Lagun - Eraso Aiarra

· Barikuan, 19:30etan, Berrizko kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiño Gaztetxe - Mazusberri

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian

Dantzari - Gu Lagunak

· Martitzenean, 19:00etan, Lanbide Heziketa Institutuan

Sapuberri - Aurrera Beti

· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian

Elorrioko B - Hegalariak

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

> SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako Baque - Autocares Artieda

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baque - Romoko Ezkorak

· Zapatuan, 16:45etan, merkatu plazan

> PILOTA

BIZKAIKO HERRI ARTEKOA

Elorrio - Zeanuri

· Barikuan, 19:00etan, Elorrioko pilotalekuan

Mallabia - Munitibar

· Barikuan, 19:00etan, Mallabiko pilotalekuan

Atxondo - Bilbo

· Domekan, 17:30etan, Atxondoko pilotalekuan

Goizane Azpiri Maurtua
Kiromasajista

Drainatze linfatikoa
Masaje deskontrakturantea
Erlaxazio masajea
Ziatika, lunbalgiak, okerdurak
Aurpegirako KOBIDO masajea

%25eko DESKONTUA
lehenengo bisitan

San Inazio auzunea, 2 behe - Durango • Tel.: 675 706 599

GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

EUSKO LABEL

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO



Jabier Ugalde

Indianoak egindako harribitxiak auzokideek zaintzen dituzte orain

Berriozabaletako lekuri ezagunena iturri ikusgarri bat da, auzoan jaiotako indiano baten laguntzagaz egina; amerikanoak hainbat berrikuntza ekarri zizkion bere garaian auzoari

> AMAIA UGALDE

Auzo txikia da Berriozabaleta. Egun ona dagoenean, bertatik Anbotoko mendizerrara, Oiz inguruak... Dena argi-argi ikusten da. Elorrioko auzo honetara Berrizko bidetik, Miotan ezkerretara hartuta heltzen da. Aramiño eta Leiz artean, auzo baketsua da. Ikustekoak dira estilo neoklasikoko iturria eta Santa Katalina ermita. Biak bertan jaio zen amerikano batek agindutakoak dira.

Jatorrizko baserriak hiru dira auzoan: Berriozabalgoitia –*Goitikoa*–, Berriozabalurrutia –*Urrutikoa*– eta Berriozabalbeitia –*Betikoa*. Azken etxe hartan jaio zen Manuel Placido Berriozabalbeitia. Etxeko bigarren anaia, bizimodua aurrera ateratzeko Andalusia aldera joan zen. Handik ibili ostean, kanpora jo zuen, eta Peruko administrazioan egin zuen lan. Ameriketatik bueltatu zenean, 1828an, Madrilera joan zen bizi izatera eta ministro beharretan

ibili zen, baina Elorriogaz hartu-emana mantendu zuen.

Berriozabaletan, anaia nagusiak mesede bat eskatu zion; bigarren semearentzako etxe bat egitea, familian eztabaidarik ez egoteko. Etxea egiteaz gainera, indianoak auzoko bizimodua hobetzeko garbilekudun iturria, basiliza berria eta Elorriora eta San Agustinerako joateko galtzadak ordaindu zituen. Galtzadak auzoko lehen etxera heldu aurretik, ezkerretara daude. Bide bakarra da hasieran, eta gero bidegurutzea dago Elorriora eta San Agustinerako. Bidegurutzearen inguru hori Dantzaleku deitzen da. Izen hori hartu du auzokideen elkarteak.

Berriozabalbeitiak, obrak ordaintzeaz gainera, obrak mantentzeko ilobari baserri bat utzi zion, Zeleta, hark errentan emateko. Errenta haren fruituekin ordaindu ziren urte askoan mantentze lanak. 1945 urtera arte aguazila arduratzen zen Berriozabaletara igo,

bideen egoera ikusi eta konponketak agintzeaz.

Ermita, auzoko elkargunea

Aurten, basilizan konponketa lanak egitekotan dira auzokideak. Leihoak eta atea konpontzeko auzolanean ibiliko dira, eta teilatuak ere berrizteko premia dauka; horretarako enpresa baten laguntza izango dute. Asmoa da auzoko jaietarako konponduta egotea. Jaietarako zabaltzeaz gainera, ermita afarietarako eta umeen txokolatadetarako ere erabili ohi dute.

Santa Katalina jaiak azaroaren 25ean edo hurrengo domekan ospatzen dituzte Berriozabaletan. Gaztaina-jana eta dantzariak izaten dituzte, besteak beste. Txitxiburduntzi eguna eta San Juan eguna ere ospatzen dituzte auzoan. Auzokideek 2007an Dantzaleku elkarte sortu zuten, auzoko arazoak, eskaerak eta basiliza, iturria eta bideen zainketa bultzatzeko.

ZER IKUSI



Roberto Mendibil

27 lagun bizi dira auzoan, 10 etxebizitzatan



Santa Katalina ermita estilo neoklasikokoa da



Karlos Eriz

Azaroaren 25aren ospatzen dituzte jaiak

anboto.iragarki laburrak.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzat - Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: anboto@anboto.org.

Paperean, ordainduta: Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

SALDU

